



Prensa-oharra, 2009/11/12


ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTATISTIKA 2009ko 2. hiruhilekoa

Etxebizitza berriak eraikitzeko aurreikuspenak behera egin du berriro 2009ko bigarren hiruhilekoan.

Aurreikuspenen arabera, 1.938 etxebizitza eraikiko dira, lehen hiruhilekoan baino 321 gutxiago, eta 2008ko bigarren hiruhilekoan baino 1.400 gutxiago.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko estatistikak erakusten duenez, 2009ko bigarren hiruhilekoan oin berriko 1.938 etxebizitza eraikitzeko asmoa dago, urtebete lehenago baino % 41,9 gutxiago, eta 2009ko lehen hiruhilekoan baino % 14,2 gutxiago.

Obra handietako lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoka eta hiruhilekoka
Euskal AE. 1999-2009



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko estatistika

Gipuzkoak, 671 etxebizitzarekin, Euskal Autonomia Erkidegoan eraiki asmo diren etxebizitzaren % 31,3 hartzen du. Ondoren Bizkaia dator, % 30,9rekin (692 etxebizitza), eta azkenik, Araba, % 28,2rekin (605 etxebizitza).



ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistika-erako Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

Arabako Lautadan Araban egin asmo diren etxebizitzak % 93,1 egingo dira, Bilboko metropolian Bizkaikoen % 41,8, eta Donostian, Gipuzkoakoen % 42,8.

Vitoria-Gasteizen 561 etxebizitza berri eraikiko dira, Euskal Autonomia Erkidego osoko etxebizitzak % 28,9, eta Arabakoen % 92,7. Atzetik datoz Amorebieta Etxano, 151 etxebizitzarekin –EAEkoen % 7,8–, Hernani 140ekin –% 7,2–, Donostia, 126ekin –% 6,5–, Beasain, 104ekin –% 5,4–, eta Bilbao, 100ekin –% 5,2–. EAEko 251 udalerritatik 57tan bakarrik –lautik bat pasatxotan– zeukaten etxebizitza berriak eraikitze asmoa.

Etxebizitzak birgaitzeari dagokionean, aurreikuspenek % 6,8 egin dute behera, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta. Nolanahi ere, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, asko igo da; urteko lehen hiruhilekoan 93 birgaitze baitziren egitekoak, eta bigarrenengan, berriz, 204; hau da, % 119,4 gehiago.

EAEko udalek emandako obra handietarako lizentzien kopurua, 2009ko bigarren hiruhilekoan, % 43,2 jaitsi da 2008ko garai berarekin alderatuta.

Udalek ematen dituzten obra handietarako lizentzien kopurua publikoa ez den eraikuntzaren egoeraren koiuntura-adierazle gisa erabili ohi da. 2009ko bigarren hiruhilekoan 526 lizentzia eman ziren.

Hirutik bi baino zerbitzu gehixeago – % 68,4–, birgaitzeko lizentziak dira; % 29,3 oin berriko eraikinetarako eta % 2 pasatxo, eraispentarako bakarrik –guztira, 12; 2008ko bigarren hiruhilekoan 28 izan ziren–.

Bizkaian obra handietarako 207 lizentzia eman dira, Araban baino gehixeago, 197 eman baitira. Baina Araban oin berriko eraikinak egiteko lizentziak proportzioan gehiago dira –% 32,5, eta Bizkaian, % 20,3–. EAEn ematen diren lau lizentziatik ia lau Gipuzkoan onartzen dira –122–.

Eraikuntzaren arloko beherakadak antzeko eragina izan du Bizkaian eta Gipuzkoan, eta Araba ere gerturatzen ari da.

Bizkaian, 2008ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuz gero, % 49,9 jaitsi da lizentzien kopurua, Gipuzkoan % 45,5; eta Araban % 31,8.

Arabako Lautadak Arabako lizentzien % 70,1 ematen ditu, Bilboaldeak Bizkaia-erakiko ematen dituenaren oso antzeko ehunekoa – % 67,6–, eta Donostiak aldiz, Gipuzkoako lizentzien % 30,3 baino ez.



ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTADISTIKA EAE-N		2009ko 2. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldea		Aurreko urteko hiruhileko berarekiko aldea	
OBRA HANDIETARAKO LIZENTZIAK		Kopurua	%	Kopurua	Aldea (%)	Kopurua	Aldea (%)
EAE	Guztira	526	100,0	5	1,0	-400	-43,2
	Oin berriko eraikinak	154	29,3	-2	-1,3	-156	-50,3
	Birgaitzeak	360	68,4	6	1,7	-228	-38,8
	Eraispenak	12	2,3	1	9,1	-16	-57,1
Araba	Guztira	197	100,0	-1	-0,5	-92	-31,8
	Oin berriko eraikinak	64	32,5	7	12,3	-45	-41,3
	Birgaitzeak	128	65,0	-11	-7,9	-43	-25,1
	Eraispenak	5	2,5	3	150,0	-4	-44,4
Bizkaia	Guztira	207	100,0	10	5,1	-206	-49,9
	Oin berriko eraikinak	42	20,3	-4	-8,7	-71	-62,8
	Birgaitzeak	162	78,3	16	11,0	-132	-44,9
	Eraispenak	3	1,4	-2	-40,0	-3	-50,0
Gipuzkoa	Guztira	122	100,0	-4	-3,2	-102	-45,5
	Oin berriko eraikinak	48	39,3	-5	-9,4	-40	-45,5
	Birgaitzeak	70	57,4	1	1,4	-53	-43,1
	Eraispenak	4	3,3	0	0,0	-9	-69,2
AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA							
EAE	Guztira	2.142	100,0	-210	-8,9	-1415	-39,8
	Oin berriko eraikinak	1.938	90,5	-321	-14,2	-1400	-41,9
	Birgaitzeak	204	9,5	111	119,4	-15	-6,8
Araba	Guztira	737	100,0	-362	-32,9	-740	-50,1
	Oin berriko eraikinak	605	82,1	-472	-43,8	-825	-57,7
	Birgaitzeak	132	17,9	110	500,0	85	180,9
Bizkaia	Guztira	690	100,0	120	21,1	-195	-22,0
	Oin berriko eraikinak	662	95,9	128	24,0	-126	-16,0
	Birgaitzeak	28	4,1	-8	-22,2	-69	-71,1
Gipuzkoa	Guztira	715	100,0	32	4,7	-480	-40,2
	Oin berriko eraikinak	671	93,8	23	3,5	-449	-40,1
	Birgaitzeak	44	6,2	9	25,7	-31	-41,3

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eraikuntza eta etxebizitzaren estatistika

Informazio gehiago:

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistikarako Organo Berezia
Donostia kalea, 1. 01011 Vitoria-Gasteiz.

Harremanetarako pertsona: Edurne Domingorena

Tel.+34-945-01 97 12 Faxa:+34-945-01 64 07

Interneteko prentsa-oharrak: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>

Webgunea: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>